



Lehiaren  
Euskal Agintaritza  
Autoridad Vasca  
de la Competencia

## Eibarko Herritar Txartelari buruzko txostena

### 241-SUST-(2017) LEAren proiektua

#### Sumarioa:

I.- Txostenaren xedea .....	1
II. Eibarko Dendarien Elkartea.....	3
III. Lehiaren ikuspegitik egindako gogoetak .....	4
A. Gogoeta nagusiak .....	4
B. Eibarko Herritar Txartela .....	5
IV. Ondorioak .....	8

#### Osoko Bilkura

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, presidentea

Natividad Goñi Urriza andrea, elkargokidea eta idazkaria

Rafael Iturriaga Nieva jauna, elkargokidea

Lehiaren Euskal Agintaritzaren Osoko Bilkurak (LEA), arestian aipatutako osaera duenak, Eibarko Herritar Txartelari buruzko txosten hau ematea erabaki du, 2017ko maiatzaren 30eko bilkuran.

### I.- Txostenaren xedea

1. Eibarko Udalak kontsulta bat aurkeztu dio Lehiaren Euskal Agintaritzari (LEA), Eibarko Dendarien Elkarreak egindako proposamen bati buruzkoa. Proposamen horretan, hitzarmen bat egitea planteatzen da (“Eibarko Udalaren eta Eibarko Dendarien Elkarrearen arteko lankidetzaren proposamena”), elkarre horren Visa txartelaren funtzionalitateak eta udal zerbitzuak (liburutegia, kiroldegia eta abar) bateratuko lituzkeen herritar txartel bat sortzeko.

2. Eibarko Herritar Txartelaren proiektuaren ezaugarriak hauek dira:

- Eibarko Dendarien Elkarreak Visa txartel bat eskaintzen du gaur egun (Affinity modalitatekoa edo fidelizazio-txartela), Eibar Txartela izenekoa, eta Caja Rural de Navarra finantza-erakundeak jaulkitzen du. Elkarrearen asmoa txartel horri ezaugarri berriak gehitzea da, txartelaren erabilerak eta funtzionalitateak handitzeko.



- Eibarko Herritarren Txartela 18 urtez gorako eskatzaileei zuzendua egongo litzateke, eta herritar txartel baten eta finantza- nahiz fidelizazio-txartel baten funtzionalitateak izango lituzke.
- Txartelak zehaztu beharreko udal instalazioetarako sarbidea emango luke; eta, horretarako, txartelak atxikita eramango luke beharrezko teknologia.
- Txartelaren irudia Udalak eta Elkarteak egindako proposamenak kontuan izanda egingo litzateke, eta, bereziki, honako elementu hauek hartuko lirateke kontuan: udalerraren irudia, erakundeen koloreak, ikur bereizgarriak eta logoak.
- Herritarrek, txartela ikustean, txartelaren irudiaren eta Eibarren arteko lotura egiteko, txartelaren atzealdea erreserbatuko litzateke eta parte-hartzaileen logoak han jarriko lirateke.
- Eibarko Herritarren Txartela bost urterako gehienezko iraupenarekin jaulkiko litzateke eta Caja Rural de Navarra soilik jaulki ahal izango luke.
- Hasieran, txartel-eskabideak udalak bidaliko lizkieke 18 urtez gorako herritar guztiei beren etxeetara. Eskabidearekin batera, gutun bat bidaliko litzateke, proiektuaren nondik norakoak azaltzeko eta txartelaren bidez udal instalazioetara sarbidea izango luketela adierazteko.
- Udalak eskabide-kontratuen liburuxkak izango lituzke bere instalazioetan, aurrerago egon daitezkeen txartel-eskaerak egin ahal izateko.
- Txartel horren bidez, erosketak egin eta dirua atera ahalko litzateke kutxazainetatik, munduko edozein lekutan.
- Titularra den pertsonak erabakitzen duen finantza-erakundearen helbideratzeko aukera egongo litzateke.
- Elkartearekin adostuta abiatutako promozio- eta fidelizazio-ekintzetan parte hartu ahal izango lukete txartelaren titularrek.
- Caja Rural de Navarra finantza-erakundearen erantzukizuna izango litzateke txartelak ematea eta haien mugak zehaztea, bai eta zehaztutako muga horiek goraka edo beheraka aldatzea txartelaren indarraldian.
- Caja Rural de Navarra finantza-erakundeak diseinatuko luke txartelaren eskabide-kontratua. Eskabidea betetzea eta formalizatzea derrigorrezkoa izango litzateke izapidea egin ahal izateko, eta eskatzaileak izango luke eskabide horretan adierazitako datuen egiazkotasunaren erantzukizuna.
- Hitzarmenean adostutakoarekin bat etorritik, udalak ez luke bere gain hartuko eskabideen jaulkipenaren kostua.
- Txartela doakoa izango litzateke titularrentzako nahiz onuradunentzako, eta ez luke mantentze-kuotarik izango, ez eta berritze- edo ordezpen-kuotarik ere.
- Udala proiektuaren sustatzaile eta preskriptore izango litzateke, proiektua sustatuz eta erakunde-babesa emanez: proiektuaren ezarpenari eta bilakaerari buruzko prentsaurrekoak, promozio- eta komunikazio-kanpainak, txartela eskatzeko eta erabiltzeko sustapenak eta abar.



## II. Eibarko Dendarien Elkarteak

3. Eibarko Dendarien Elkarteak (IFZ: G 20346615), egoitza Urtzaile kalea 1 20600 Eibar helbidean duena, 1987an sortutako merkataritza-elkarte zonala da.

Elkartearen webgunean argitaratutakoaren arabera, Elkarteak 121 establezimendu dauzka atxikita, eta honako kategoria<sup>1</sup> hauetan banatzen da.

- Elikadura: 11
- Askotariko dendak: 7
- Etxea: 17
- Ostalaritza: 1
- Moda eta osagarriak: 56
- Osasuna eta edertasuna: 21
- Zerbitzuak: 8

2016an, Eibarren 383 txikizkako establezimendu zeuden (2015ean, 394, eta 2014an, 388)<sup>2</sup>.

Merkataritza mota	2014	2015	2016
4532 Motordun ibilgailuen ordezkotako pieza eta osagarrien txikizkako merkataritza	1	1	1
4711 Espezializatu gabeko txikizkako merkataritza, batez ere elikadura-produktuak, edariak eta tabakoa saltzen duena	34	34	28
4719 Espezializatu gabeko establezimenduetan egiten den txikizkako beste merkataritza	19	15	14
4721 Espezializatutako establezimenduetan fruta eta barazkien txikizkako merkataritza	12	13	14
4722 Espezializatutako establezimenduetan okela eta haragi-produktuen txikizkako merkataritza	21	21	20
4723 Espezializatutako establezimenduetan arrain eta itsaskien txikizkako merkataritza	16	14	13
4724 Espezializatutako establezimenduetan ogi eta okindegi- eta gozotegi-produktuen txikizkako merkataritza	22	23	21
4725 Espezializatutako establezimenduetan edarien txikizkako merkataritza	2	4	3
4726 Espezializatutako establezimenduetan tabako-produktuen txikizkako merkataritza	8	9	9
4729 Espezializatutako establezimenduetan el kagaien txikizkako merkataritza	13	12	10
4730 Espezializatutako establezimenduetan automoziorako erregaien txikizkako merkataritza	3	3	3
4741 Espezializatutako establezimenduetan ordenagailuen, tresneria periferikoen eta programa informatikoen txikizkako merkataritza	5	6	6
4742 Espezializatutako establezimenduetan telekomunikazio-ekipoen txikizkako merkataritza	7	6	6
4743 Espezializatutako establezimenduetan audio- eta bideo-ekipoen txikizkako merkataritza	0	0	0
4751 Espezializatutako establezimenduetan ehunen txikizkako merkataritza	17	17	15
4752 Espezializatutako establezimenduetan burdindegi, pintura eta beiren txikizkako merkataritza	14	15	17

<sup>1</sup> Ikusi kide diren establezimenduen zerrenda webgune honetan: <http://eibarcomercial.org/elkartekideak/>

<sup>2</sup> EUSTAT. Jarduera ekonomikoaren direktorioa. EAEko establezimenduak udalerraren, JESN-2009ren eta aldiaren arabera. Webgune honetan ikusgai: [http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX\\_3452\\_est04b.px/#axzz4lwdhhsdk](http://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/euskara/-/PX_3452_est04b.px/#axzz4lwdhhsdk).



4753 Espezializatutako establezimenduetan alfonbren, moketen eta horma eta zoruen estalduren txikizkako merkataritza	3	3	3
4754 Espezializatutako establezimenduetan etxetresna elektr koen txikizkako merkataritza	7	6	8
4759 Espezializatutako establezimenduetan altzarien, argizatze-gailuen eta etxeko beste tresna batzuen txikizkako merkataritza	21	21	20
4761 Espezializatutako establezimenduetan liburuen txikizkako merkataritza	4	4	3
4762 Espezializatutako establezimenduetan egunkarien eta papertegiko artikuluen txikizkako merkataritza	12	12	12
4763 Espezializatutako establezimenduetan mus ka- eta bideo-grabaketen txikizkako merkataritza	0	0	0
4764 Espezializatutako establezimenduetan kirol-produktuen txikizkako merkataritza	7	5	5
4765 Espezializatutako establezimenduetan jolas eta jostailuen txikizkako merkataritza	2	2	2
4771 Espezializatutako establezimenduetan jantzien txikizkako merkataritza	48	52	50
4772 Espezializatutako establezimenduetan oinetakoen eta larruzko artikuluen txikizkako merkataritza	18	19	19
4773 Espezializatutako establezimenduetan farmazia-produktuen txikizkako merkataritza	12	12	11
4774 Espezializatutako establezimenduetan artikulua medikoen eta ortoped koen txikizkako merkataritza	10	11	7
4775 Espezializatutako establezimenduetan kosmetika- eta higiene-produktuen txikizkako merkataritza	7	8	11
4776 Espezializatutako establezimenduetan loreen, landareen, hazien, ongarrien, lagun egiteko animalien eta horientzako janarien txikizkako merkataritza	7	7	7
4777 Espezializatutako establezimenduetan erloju- eta bitxitegi-artikuluen txikizkako merkataritza	7	7	6
4778 Espezializatutako establezimenduetan artikulua berrien txikizkako beste merkataritza	13	14	14
4779 Espezializatutako establezimenduetan bigarren eskuko artikuluen txikizkako merkataritza	1	2	2
4781 Salmenta-postuetan eta azoka txikietan janari-, edari- eta tabako-produktuen txikizkako merkataritza	2	1	3
4782 Salmenta-postuetan eta azoka txikietan ehungintza-produktuen, jantzien eta oinetakoen txikizkako merkataritza	1	0	2
4789 Salmenta-postuetan eta azoka txikietan beste produktu batzuen txikizkako merkataritza	2	2	6
4791 Posta edo Internet bidezko txikizkako merkataritza	2	3	2
4799 Ez establezimenduetan, ez salmenta-postuetan, ez eta azoka txikietan egiten den txikizkako beste merkataritza	8	10	10
<b>GUZTIRA</b>	<b>388</b>	<b>394</b>	<b>383</b>

Elkartekideen artean ez dago, esaterako, supermerkatu- edo hipermerkatu-katerik. Webgune espezializatu baten arabera, honako hauek daude Eibarren: BM Urban (1), Covirán (1), El Corte Inglés (1), Eroski city (3), Hiper Eroski (1), Lidl (1) eta Mercadona (1)<sup>3</sup>.

### III. Lehiaren ikuspegitik egindako gogoetak

#### A. Gogoeta nagusiak

4. Bere eskumenak gauzatze aldera, Administrazioak neurri bat hartu eta, horren ondorioz, operadore bati balizko abantaila bat ematen dionean eta

<sup>3</sup> <http://www.tiendeo.com/Tiendas/eibar>



horrek merkatuan ondorioak eragin ditzakeenean, honako arrazoiren batean oinarritu beharko litzateke<sup>4</sup>:

- Merkatuan akatsak egotea; hau da, merkatua baliabideak esleitzeko mekanismo hoberena ez izatea, edo
- beste helburu batzuk bilatzea, errenta birbanatzearen ikuspegitik, merkatuaren emaitzetan hobekuntzak izango direlakoan edo helburua ekonomikoa ez izatea.

Administrazioaren esku-hartzeak abantailak izan ditzake —ekonomikoki kuantifikatu behar diren etekinak, kostuekin alderatu ahal izateko—, baina eragozpenak ere sor ditzake, eta azken horiek minimizatzeke beharrezkoa da ebaluatzea, *ex ante*, ea proiektatutako neurria diskriminatzailea den, eta ea behararen, egokitasunaren eta gutxieneko lehiakortasun-mugen eta proportzionaltasunaren baldintzak betetzen dituen. Ebaluaketa hori hiru urratsetan oinarrituko litzateke:

- **Beharra:** neurriak ezinbestekoa izan behar du merkatu-akats bat zuzentzeko edo interes komunekin helburu bat lortzeko, hala nola birbanaketa edo ekonomikoak ez diren beste helburu batzuk gauzatzea. Horretarako, funtsezkoa da lortu nahi den helburua ondo identifikatzea.
- **Egokitasuna** eta gutxieneko lehiakortasun-mugak: neurriak egokia izan behar du, merkatu-akatsa zuzentzeko edo interes komunekin helburua lortzeko. Hortaz, administrazioak esku hartzeko beste modu batzuk edo laguntzeko tresnaren beste diseinu batzuk aztertu behar dira. Gainera, ez lirateke alboratu behar merkatuak herritarren ongizatea hobetzeko eskain ditzakeen konponbideak.
- **Proportzionaltasuna:** neurriak helburua lortzeko ezinbesteko elementuak izan behar ditu. Era berean, neurriaren etekinak lehiakideekiko kostu potentzialak baino handiagoak izan behar dute, bai eta eraginkortasunarekiko eta diru-kutxa publikoarekiko ere.

## B. Eibarko Herritar Txartela

5. Egun, Dendarien Elkartek **Eibar Txartela**<sup>5</sup> izeneko Visa Affinity edo fidelizazio-txartela du, Caja Rural de Navarra erakundeak jaulkitzen duena. Txartel hori doakoa da eta ez dakar gastu gehigarririk, ez komisiorik, ez eta mantentze-gasturik ere.

Finantza-txartel baten ohiko ezaugarriak izateaz gain, Eibar Txartelaren bidez puntu metagarriak eskura daitezke erosketa bakoitzarekin, eta, gero, bidaia, erosketa-txeke eta opariengatik truka daitezke.

<sup>4</sup> CNMC *Laguntza publikoak ebaluatzeke metodologia-agiria*. PRO/CNMC/001/16, Madril, 2016. Hemen eskuragarri <https://www.cnmc.es/file/107238/download>.

<sup>5</sup> Ikusi egungo Eibar Txartelaren ezaugarriak honako webgune honetan: <http://eibarcomercial.org/elkartearen-txartela/>



6. Eibarko Udalak, Udal Kirol Patronatuaren bidez, **Eibar Kirol Txartela** eskaintzen du. Txartel horrek, aurrez dagokion tarifa ordainduta, Ipurua kiroldegira, Unbe Kirol Konplexura eta Orbea kiroldegira sarbidea eta ikastaro eta jardueretan izen emateko lehentasuna ematen du, bai eta zerbitzu eta jardueretan deskontuak izatekoa ere<sup>6</sup>.

Era berean, Juan San Martin Udal Liburutegian etxerako mailegu-zerbitzua eskaintzen da; horretarako, beharrezkoa da **irakurle-karneta**<sup>7</sup> izatea.

7. Eibarko Herritar Txartelaren proposamenaren bidez, Udalak udalerriko enpresa pribatuen elkarte batekin lotuko luke bere administrazio-jarduera, eta, hori dela eta, lehentasuna emango lieke enpresa horiei Eibarko gainerako enpresa pribatuen kaltean.

Elkarteko enpresa pribatu horiek, zalantzarik gabe, beren merkataritza-jarduera handitzen ikusiko lukete; izan ere, gero eta herritar gehiagok elkartearen fidelizazio-txartela izango luke eta, lortutako opari-puntuek erakarrita, establezimendu horietara joango lirateke berriz ere, eta ez beste establezimenduetara.

Txartela duten herritar kopurua handitzea ez litzateke izango soilik saltoki horiek eskaintzen duten produktuen kalitatearen eta bezeroarekiko tratu onaren emaitza, baizik eta, hein handi batean, Eibarko Udalaren esku-hartzearen ondorioz gertatuko litzateke, hau da, Eibarko herritarrei txartel-eskabideen bidalketa masiboa egitearen eta publizitate-kanpainak egitearen ondorioz.

Horrenbestez, Udalak Eibarko txikizkako merkataritzan esku hartuko luke, eta, hori dela eta, udalerriko txikizkako merkataritza distortsionatu eta enpresa batzuk beste enpresa batzuk baino hobeto kokatuta geldituko lirateke.

8. Udalaren eta Elkartearen arteko hitzarmenaren zirriborroan ez da eskusibotasunik adierazten, baina txartelak “Eibarko Herritar Txartela” izena du, eta finantza- eta teknologia-bazkide gisa jarduten duen eta proiektuari babesa ematen dion finantza-erakundeak soilik jaulki ahal izango luke.

Teorian, beste edozein elkartek ere egin ditzake antzeko hitzarmenak Eibarko Herritar Txartela ez diren beste txartel batzuk jaulkitzeko, baina txartelaren izenak berak pentsarazten du eskusibotasuna egon badagoela eta Udalak ez dut zertan Elkarteko enpresen alde egin behar gainerako enpresen kaltean.

<sup>6</sup> Ikusi Eibar Txartelaren ezaugarriak honako webgune honetan: <https://www.eibarkirola.com/eibar-kirol-txartela/ekt-prestazioak/>

<sup>7</sup> Ikusi irakurle-karnetaren ezaugarriak honako webgune honetan: <http://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia/zerbitzuak-eta-erabilera/etxerako-mailegua>



Hitzarmenean Udalari ematen zaizkion funtzioek —hasieran, txartelen eskabideak bidaltzea 18 urtez gorako herritar guztiei, eta, haiekin batera, gutun bat bidaltzea proiektua azaltzeko eta txartel horren bidez udal instalazioetara sartzeko aukera dutela adierazteko, bai eta instalazio horietan eskabide-kontratuen eskuliburuak eskuragarri izatea, aurrerago, txartelen eskaeren izapidetzeak errazteko— baztertu egiten dute, *de facto*, Eibarko beste entitate pribatuek antzeko proiektuak abiarazteko planteamenduak egitea.

Era berean, txartelaren diseinuak —udalerrriaren irudia eta erakunde-koloreak barne hartuko lituzke, eta, hori dela eta, txartela Eibar udalerriarekin identifikatuko luke— oraindik ere modu argiagoan baztertzen du Eibarko Herritar Txartelarekin lehiatuko den ekimen berri bat abiaraztea.

**9.** Beste alde batetik, hitzarmen-proposamenetik ezin da ondorioztatu Udalarentzako etekinik izango denik; izan ere, eskabideen jaulkipenak Udalarentzako kosturik izango ez duela eta txartelak finantza-erakundeak jaulkiko dituela aurreikusten badu ere, Udalak administrazio-txartelak (Eibar Kirol Txartela eta irakurle-txartela) jaulkitzen jarraitu behar du txartel berria eskuratzen ez duten herritarrentzako.

Era berean, hitzarmena egingo balitz, Udala behartuta egongo litzateke promozio- eta komunikazio-kanpainak abiaraztera, herritarren artean txartelaren eskaera eta erabilera sustatzeko, bai eta txartela publizitate-euskarrietan jartzera ere, eta horrek guztiak kostu ekonomikoa izango luke Udalarentzako. Gainera, Udalari dagokionez, Udalaren egungo txartelen funtzionalitate berak (kirol- eta kultura-instalazioetarako sarbidea) izango lituzkeen txartel bat sustatuko litzateke.

**10.** Herritarrentzat, berriz, proposatutako txartelaren abantaila bakarra gainean txartel ugari ematearen eragozpena —eragozpena baldin bada— saihestea izango litzateke; izan ere, Herritar Txartelaren titularra izateak ez du kentzen udal zerbitzuetan izen emateko betebeharra, ez eta kontratatutako zerbitzuak ordaintzekoa ere. Hau da, txartel berria edukitzeak ez du doakotasunik ematen udal instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko orduan.

**11.** Beste alde batetik, Dendarien Elkarreak proposatutako hitzarmenaren bidez, Udalak erraztu egingo lioke finantza-erakunde jakin bati Eibarko udalerriko banku-txartelen merkatuaren kuota handiago bat lortzea, hau da, tokiko administrazio batek berezkoak ez dituen jardueren esparrutik kanpoko merkatu batean esku hartuko luke, eta, hori dela eta, merkatu hori distorsionatuko luke, interes orokorarentzako etekinik sortu gabe.



Hain zuzen, finantza-erakunde horrek jaulkitako txartelen hedapena ez litzateke izango soilik erakunde horrek egindako erakartze-lan onaren emaitza, baizik eta, hein handi batean, Eibarko Udalak egingo lituzkeen txartel-eskabideen bidalketa masiboaren eta publizitate-kanpainen ondorioa izango litzateke.

**12.** Horrez gain, hitzarmenean ezartzen da EIBARKO HERRITAR TXARTELAren bidezko udal instalazioetarako sarbidea —abonatu, kide edo erabiltzaile izanik— kontratatutako zerbitzuen ordainketak eginda dituzten txartelaren titularrei soilik baimendu eta erraztuko diela Udalak.

Hitzarmeneko puntu horrek pentsarazten du egiten ez den ordainketa orok edozein zerbitzu erabiltzea eragozten duela (baita ordaindu ez diren zerbitzuekin lotuta ez dauden zerbitzuak ere). Interpretazio horren bidez, Udalak liburutegirako eta udal instalazioetarako sarbidea mugatuko luke betebeharrak zibikoetatik at dauden arrazoi komertzialetan oinarrituta, eta neurri hori guztiz onartezina da administrazio-zuzenbidearen ikuspegitik. Neurri horren helburua beste bat baldin bada, zehaztasun handiagoz idatzi beharko litzateke gai horri buruz.

**13.** Horrenbestez, Eibarko Udalak Dendarien Elkartearekin hitzarmen hori egitea, egungo Eibar Txartelaren funtzionalitateei, Eibarko Herritar Txartel berria sortuz, udal zerbitzuak gehitzeko, ez da beharrezkoa, ez egokia, ez eta proportzionala ere; izan ere, ez dago zuzendu beharreko merkatu-akatsik, ez eta Udalaren esku-hartzearen bidez lortu beharreko interes orokorreko helbururik ere; aitzitik, esku-hartze horren bidez, Eibarko txikizkako merkataritzaren eta banku-txartelen merkatuak distorsionatzen dira.

## IV. Ondorioak

**LEHENENGOA.** Eibarko Udalak Dendarien Elkartearekin hitzarmen hori egitea, egungo Eibar Txartelaren funtzionalitateei, Eibarko Herritar Txartel berria sortuz, udal zerbitzuak gehitzeko, ez da beharrezkoa, ez egokia, ez eta proportzionala ere; izan ere, ez dago zuzendu beharreko merkatu-akatsik, ez eta Udalaren esku-hartzearen bidez lortu beharreko interes orokorreko helbururik ere.

**BIGARRENA.** Eibarko Herritar Txartelaren bidez, Udalak udalerriko enpresa pribatuen elkarte batekin lotuko luke bere administrazio-jarduera, eta, hori dela eta, lehentasuna emango lieke enpresa horiei Eibar udalerriko gainerako enpresa pribatuen kaltean. Horrenbestez, Udalak Eibarko txikizkako merkataritzan esku hartuko luke, eta, hori dela eta, udalerriko txikizkako





merkataritza distortsionatu egingo litzateke eta enpresa batzuk beste enpresa batzuk baino hobeto kokatuta geldituko lirateke.

**HIRUGARRENA.** Eibarko Udalak, Eibarko Herritar Txartela sortuz, esku hartuko luke Eibar udalerriko banku-txartelen merkatuan, eta, hori dela-eta, merkatu hori distortsionatuko luke, gaur egun Eibar Txartela jaulkitzen duen finantza-erakundearen mesedetan.

**LAUGARRENA.** Eibarko Udalak posizio neutrala izan behar du merkatu guztiekiko, eta merkatuetan esku-hartzeko badu, operadore ekonomikoen arteko lehia askeko eta berdintasunezko baldintzak ezartzeko izan behar du.